



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014KO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Txosten hau egin da Ogasun eta Finantza Sailak hala eskatuta, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu dion eskumena baliatuz.

Txostenaren xedea da egiaztatzea egoki aplikatzen dela 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoa eta genero-inpaktuari buruzko alde aurreko ebaluazioa egiteko nahiz emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko jarraibideetan –Gobernu Kontseiluak 2011ko abuztuaren 21eko Erabaki bidez onartuak– ezarritakoa, eta ildo horretan hobetzeko proposamenak egitea.

Eskatutako txostenaren aztergaia den lege-aurreproiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea.

Beraz, xedapen arauemaile orokorra da, eta haren genero-inpaktuaren arabera ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 atalean ezarritakoari jarraiki. Horretarako, lehenengo jarraibidearen 3. atalean ezarritakoa betez, araua sustatu duen organoak genero-inpaktuari buruzko txostena egin du.



4/2005 Legeak eta genero-inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideek ezarritako izapide formalak bete direla egiaztatu ondoren, gogoeta eta proposamen hauek egiten dira, genero-inpaktuari buruzko txostena prestatzeko prozesuaren eta txostenaren edukiaren inguruan.

Lehenik eta behin, positibo irizten diogu Ogasun eta Finantza Sailak genero-inpaktuari buruzko txostena egitean izan duen jardunbideari: aurreko ekitaldietan antolatutako lan-prozedurari jarraiki, Jaurlaritzako sail guztiei eskatu die beren aurrekontu-programetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea xede duten helburuak, ekintzak eta/edo jarduerak zehazteko.

Positibo irizten diegu, halaber, egungo Eusko Jaurlaritza osatzen duten sail guztiek nahiz erakunde autonomo eta ente publikoek emandako laguntzari eta egindako ahaleginari, eskatu zaizkien galdesortak betetzeko. Hala ere, adierazi behar dugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, aurrekontu-programen berdintasunerako helburuak edo ekintzak zehaztu baditu ere, ez duela horiei esleitutako aurrekontu-kreditua zehaztu. Garrantzitsua zatekeen hori egin izana, aurrekontuetan nabarmenago agertuko baitzen erakunde autonomoak berdintasunaren alde egiten duen lana.

Bigarrenik, genero-inpaktuari buruzko txostena osatzeko, 2013ko ekitaldiko aurrekontuei dagokien txostenean erabilitako egitura bera erabili da. Hala ere, zenbait hobekuntza eta/edo aldaketa hauteman dira atal hauetan:



- 2. atalean, lehentasunezko esku-hartze esparruei dagokienez, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterketaren datuak eta azalpena hobeto eta laburrago aurkeztu dira. Informazioa era sintetiko eta grafikoagoan aurkeztu da, eta horri esker txostena azkarrago irakurtzen da eta ulergarriagoa da.
- 3. atalean, euskal administrazioko langileen sexuaren arabera azterketaz gain, Eusko Jaurlaritzako langileei zuzendutako berdintasunerako prestakuntzari buruzko azterketa bat gehitu da.
- 4. atalean, gastuaren azterketari buruzkoan, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan berdintasuna sustatzeko programei esleitutako kredituaren azterketa konparatiboa egin da, 2013an egin zen moduan. Bestalde, bai Jaurlaritzak oro har bai sail bakoitzak aurrekontuaren guztizkotik berdintasuna sustatzera gutxi gorabehera zein ehuneko bideratzen duten kalkulatu da.

Hala, arlo ekonomikoan, politikoan eta sozialean emakumeen eta gizonen artean desberdintasun ugari dauden arren, egiaztatu da aurrekontu osoaren %0,31 baino ez dela esleitu berariaz berdintasuna bultzatzera, aurreko urtean baino %0,18 gehiago. Alde horretatik, genero-inpaktuari buruzko txostenean esaten da gehikuntza hori izan dela Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak irizpidea aldatu duelako kontziliazioarekin lotutako jardueretan. Izan ere, orain arte ez ziren sartzen “adingabeak zaintze aldera langileen lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak”. Horrek aditzera ematen du 2014. urtean zehar aurrekoan baino baliabide gutxiago bideratuko direla berdintasuna sustatzera, betiere kalkuluen arabera sail bakoitzak eman dituen kredituak kontuan hartuz, jakinik, hala ere, sailek

jasotako datuetan agertzen ez diren beste kontu-sail batzuk egon daitezkeela.

- Irizpide berriak hartu dira ekintzak sailkatzeko:
 - Ez da beharrezkotzat jo berariazko aurrekontu-sailik ez duten Gobernantzaren arloko berdintasuna sustatzeko neurriak aztertzea, jarduera horiek batik bat berdintasun-teknikariek egiten dituztelako eta, horregatik, 2. multzoan jasota daudelako.
 - Ez dira sartu berdintasuna sustatu arren administrazioako edo haren erakunde autonomoetako langileek egiten dituzten jarduerak.

Hobekuntza horiez gain, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Sailek zehaztu eta genero-inpaktuari buruzko txosteneko 8. atalean jasotako emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko aurrekontu-programei eta helburu, ekintza eta jarduerari –handiago zein txikiagoei– dagokienez, komenigarria litzateke egindako hautaketa berraztertu eta doitzea; izan ere, gure iritziz horietako batzuek, bere hutsean, nekez sustatuko dute berdintasuna, ekintza positiboko neurriak gehitu ezean¹. Bestalde, berdintasunerako zenbait ekintza ez daude diruz hornituta.

¹ Besteak beste, osasunaren arloko ekintzak, hala nola haurdunaldirako, erditzerako eta erditze ondorako laguntza-materiala argitaratzea eta Bularreko Minbiziaren Detekzio Goiztiarreko Programako Kalitatea Bermatzeko Programa (KBP) garatzen eta gainbegiratzen laguntzea, eta LGTBen Orientazio eta Aholkularitza Zerbitzuko gizarte-politiken arloko ekintzak.



Ildo horretan, komenigarria litzateke azaltzea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak zein arrazoi izan dituen “adingabeak zaintze aldera langileen lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen” inguruan irizpidea aldatzeko, eta zehaztea laguntza horiek zein eragin izatea espero duen emakumeen eta gizartearen berdintasuna sustatzeari dagokionez; izan ere, gaurdaino laguntza horiek ez baitira sailkatu berdintasuna sustatzea, bazterkeriei aurre egitea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea helburu duten aurrekontu-sail gisa.

- Gainera, genero-inpaktuari buruzko txostenean esaten denez, “*Eusko Jaurlaritzako sail guztiek berdintasun-unitate bat dute, Segurtasun Sailak izan ezik; azken horretan, orain sortzen ari dira*”. Horri dagokionez, adierazi behar da Segurtasun Sailean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikariaren plaza sortu dela, arau honen bidez: 418/2013 Dekretua, urriaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa saileratu eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen Dekretua aldatzen duena. Hori ere 6. atalean, genero-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioari buruzkoan, jasotzen diren berdintasuna sustatzeko ekintza esanguratsuenen artean sar liteke.
- Helburuen edo ekintzen artean berdintasuna sustatzea, bazterkeriei aurre egitea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea dituzten programei dagokienez (3. multzoa), genero-inpaktuari buruzko txostenean adierazten da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bere egin dituela indarkeriaren biktimen arretari



- dagozkion zenbait eskumen, nahiz eta oraindik ez diren onartu eskumenen eskualdatze hori gauzatu ahal izateko arauak.
- Genero-inpaktuari buruzko txostenean ez da aztertu Aurrekontu Legearen aurreproiektuko artikuluetan jasotako neurriek zein ondorio –onuragarriak nahiz kaltegarriak– izan ditzaketen emakume eta gizonengan. Neurri horietako batzuk dira, esaterako, bosgarren xedapen gehigarrian diru-laguntzak eta prestazioak %7 murriztearen inguruan ezarritakoak; horien artean, arau hauetan xedatutako prestazioak: abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, eta 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
 - Bestalde, txostenean esaten denez, Ogasun eta Finantza Sailak “*uste du beharrezkoa dela genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu batzuk bultzatzea, berdintasunerantz aurrera egiteko zeharkako neurri gisa*”. Horretarako, “*laneko plan bat zehazten hasi da, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek parte hartuko duten eta aurreko bideari jarraituko dion proiektu bat abian jartzeko lehentasunezko lan-ildoak ezartze aldera*”. Alde horretatik, egokitzen jotzen da sailaren ekimen hori, eta baita metodologia proposena taxutzen hasteko hartu duen konpromisoa ere, Institutu honek Aurrekontu Legea izapidetzean egindako gomendioekin bat datozelako. Horrenbestez, gomendatzen da sail arteko lantalde bat sortzea, aurrekontuen arloko eskumenak dituen sailak zuzenduko duena eta Emakunderekin eta genero-aurrekontuen arloko adituekin lankidetzan estuan arituko dena, aurrekontu-prozesuaren maila guztietan genero-azterketa txertatzeko lan-metodologia zehazteko eta garatzeko, 4/2005 Legeak,



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 3.4 eta 14. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

Horri dagokionez, positibo irizten diogu saileko kargu politiko guztiekin Emakunderen zuzendaritzapean egindako bilerari, non aztertu ziren Jaurlearitzako sailetan izan diren esperientziak eta nabarmendu zen Eusko Jaurlearitzan genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak egiteko metodologia komun bat taxutu eta sistematizatzearen garrantzia. Horrez gain, interesgarria litzateke prestakuntza bultzatzeko neurriak ezartzea genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak egin ahal izateko, sail bakoitzean eta, batez ere, Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zuzendaritzan zuzenean aurrekontuak lantzen dituzten teknikariei zuzendua.

Bestalde, Ogasun eta Finantza Sailak erronka hauek jarri ditu genero-inpaktuari buruzko txostenean, 2015eko aurrekontu orokorreari begira txostena hobetzeko:

- Aurrekontuen genero-inpaktuari buruzko txostena lantzeko prozesua txertatzea Ogasun eta Finantza Sailak abiarazitako Genero Ikuspegidun Aurrekontuen (GIA) proiektuan.
- EAEko emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko bat gauzatu ahal izateko behar den adierazle-multzoa lantzen jarraitzea. Alde horretatik, gogoratu behar da 2012an Emakundek adierazle-sistema bat ondu zuela, EAEko emakumeen eta gizonen



berdintasunerako politiken sakoneko helburu eta balioen bilakaera aztertze².

- Gainerako sailetan lanean jarraitzea, batez ere berdintasunaren arloko esku-hartze eta ekintzetan.
- Behar diren neurriak ezartzea, sail guztiek garaiz eta behar bezala bete eta aurkez dezaten Aurrekontu Zuzendaritzak egin dien eskaera.

Azkenik, lege-aurreproiektua eta genero-inpaktuari buruzko txostena idazteko orduan ez da hizkera sexistarik erabili, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoa betez. Hala ere, gaztelaniaz maskulinoan soilik idatzi diren zenbait termino berrikusi eta egokitu beharko lirateke; esaterako, “empleados”, “autónomos” eta “empresarios”.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 18a

² Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna. Emakunde. 2012.
http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia_indicadores.pdf